

KULTURA

Leihatila ① JOSE LUIS ALVAREZ 'TXILLARDEGI' (Idazlea)

'Auspoa' altxorra

Joan den urriaren 4ean, Koldo Mitxelenaeneko Aretoan, bere 292 eta 293 ale trinkoak aurkeztu zituen Auspoa Sailak.

Frantzisko Apalategi jesuitaren izkribue-tan funtsaturik, *Karlisten eta liberalen gerra-kontaeak* bilduma berria eskaini digu oraingoan Aita Antonio Zavalala nekagaitzak. Ekitaldiko mahaikide Gotzon Garmendia eta Joxemari Iriondo izan zituen.

Bere ohituraz kanpo, F. Apalategi bildutako dokumentu mordo hori bereziki interesgarria delakoan, testuen erdal itzulpena erantsi du A. Zavalak.

Aita Apalategi jesuitaren berri bagenuen aspaldidanik. Bigarren Karlistadan ibilitako gudari-ohi zaharren ahotik 1922tik aurrera lortutako lekukotza biziak bost koa-demotara bildu zituen; eta 1961an, hura hilda 13 urtera, lehenengo liburu mamitsu bat eskaini zigun A. Zavalak: *Gure mutillak armetan* (Auspoa, 3).

Hain zuzen ere, *Putzu* nobela idatzi nuenean, oso kontutan izan nuen Apalategiren liburua.

Horretan ikasi nuen, esate baterako, Lizarraga Jenerala (Santa Cruz-en kontrako agintari ofiziala), iruin-xemea izanik, euskaraz polito moldatzen zela (24). Eta xehetasun hau berrestita agertu da azkeneko liburu bikoitzean: «Para animarnos, nos decia Lizarraga: 'Eraul-ez oroitut!'» (11, 19).

Eta tarteka dato soziolinguistiko interes-

garriki ematen ditu gudari zahar haiengandik entzundakoa baliatuz: «(bi beltz kastellano gugana etorri) eta guk erderaz jakin ez, eta alkar ezin adierazirik ibiltzen giñan» (1, 242).

Kondaira *argitaratu*-aren inguruan, jakina denez, kritika zorrotzak eta egokiak egin daitezke, eta egin behar dira, datzekion gabeziak azaltzeko.

Hau gogorazi behar da lehen-lehenik: gugana iritsi ohi den kondaira mota hori, garaileek idatzitakoa izaten dela. Gudueta-ko galtzaileek beren *egia*-atala (edo beren ikusmoldea gutxienez) hilobira eramane ohi dute.

Adibide bakar bat. Donostiak bi Mante-rola famatu eman ditu: Jose Pepe liberala, eta *Kosketako* Bizente karlista; Madrileko Gortean Castelar famatuari kontra egin zion kalonjea. Hots, Donostian, lehenengoak badu kale bat. Bigarrenak ez.

Bigarrenik, berriz, beste hau dago: euskaldun hutsen ezinak eta sofrikario bereziak nekez uler ditzaketela euskaraz ez dakiten historiariek. Hutsune nabarmen hau Joxe Azurmendik azpimarratu du ausarkienik. Nahiz gure arteko erderomanoek kontutan ez hartu, ezta hartuko ere.

Unamunok danieraz ikasi zuen Kierkegaard zehazki ulertzeko. Baina hemengo batzuek, Auspoak 50 urte honetan joan den mendeko euskaldun gizarteaz eskaini digun datu pila harrigarriari kasorik ez,

eta *Ex-cathedra* idazteari eusten diote harro.

Hizkuntzaren oinarria eskaini digu Auspoak oinarria eskaini digu, hasteko, 300 liburuotan. Euskaldunen arteko hiztegia dugu, batetik, harropuzki *arlotzetat* mespretxatzen diren euskal fonologiaren araberako *bitxikeriak* barne.

Eta errazegi baztertzen ere, euskaldun potoek gaur arte gertakariak azaltzean erabili izan dituzten kondaira aspektuala eta esamolde jator anitz.

Auspoak liburuetan bertsolariak eta bertso-paperak topatzen ditugu dozenaka. Egia. Eta bilketa-lan gaitza egina du Zavalala tolosarrak alor horretan.

Ez da egia, ordea, Sortak bertsolariak bakarrik argitara dituenik. Urruzuno apaiza, Agustín Iturriaga, Antero Apaolaza, Bizenta Mogel, Piarres Lartzabal, Aita Kardaberatz, Xabier Munibe, eta abar luze bat, benetako euskal idazleak izan dira. Eta askok, Auspoan irakurri ahal izan ditugu.

Sortako liburu batzuk, eta ez gutxi, prosazko kondairak dira, gainera. Etxaburu, Zapirain *Ataño*. Sebastian Salaberria, eta abar.

Haueti guztiei ez-ikusia egitea eroso izan dakiok erdaldunari: baina arriskutsua da; eta, nolabai ere, euskaldun gizarteari ostiko galanta.

Baina, amaitzeko, itzul gaitzen laburki hizkuntzaren alorrera.

Orain [Do.nos.tia] (3 silabatan), [O.ri.o] (2), edo-ta [sue.te] (2) egunero irratiz eta telebistaz jasaten ditugularik, argi-emale gertatzen dira bertsolarien ahoskerak: [Do.nos.ti.ya] (4), [O.ri.yo] (3) eta [su.ber.te] (3) aurkitzea, esate baterako. Euskal silabaketaz, sinalefaz, harrobi gaitza bertsolariengan.

Honek eta beste mila puntuk azterketa zehatza merezi dute. Baina ez da hau lekurik aproposena burutzeko. Ondorio hau bakarrik: Unibertsitatean mamitzen ari diren Tesie gain, primerako oinarri empirikoa eskaintzen zaigula 300 liburu horietan.

Arreta osoaz irakurri ditut egun hauetan Gotzon Garateren esanak (ik. Jakin 149, 29-108 orr.), Zavalala, dinosku, ez da aberzalea, independentista alegia. Euskara Batuaren aldekoa ere ez, erantsiko dut nik.

Baina, Garateren hitzak neure egiten ditudalarik: «Zavalak egundoko lana egina du: hirurehundi gora liburu, benetako euskaraz idatziak, argitaratu. Baserritarren eta euskararen jabe direnen kontaktizunak jaso ditu. Eta bertso mordoak. Kontu horietan, Euskal Herri osoan, gutxi izango da berak bezainbat dakienik» (61).

Bizi guztian barrena erdara inposatzen diguten *überchale* multzo ugaria jasan behar izaten dugularik, ez dakit, benetan, ez ote ditudan nahiago Antonio Zavalaren ez-paleko filo-karlistak.

LABARTZARI
AGUR
TXILLARDEGI

eikar

Quaxeta 2005
ehungarrean hamaika

GARI FRANCIS DIEZ
EHAU ELORRIETA XABIER MONTOYA
MIKEL URDANGARIN ANJE DUHALDE
RAFA RUIDA XABI STRUBELL
JABIER MUGURUZA PETTI
TXUMA MURUGARRIN

HURRENGO EMANALDIA

Bilbo Azaroak 8 20:00 Arriaga Antzokia

bbk MUNGIA UDALA radioeuskadi berria

berria

publizitatea:
publi@iragarri.net
943 30 40 30

Euskaldunok behar dugun berria

RIP

LAUAXETA 2005

ARINA BELTZA

SEÑOR NO

BIDEBAT

DESOREKA

PIZTIK

MAL DE OJO

AREAN

PIZTIK

MIREN ARANBURU ENSEMBLE

gaztelupeko HOTSAK

gaztelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com

errabal